

Txistuaren soinuez, herri zubiak



Igande honetan emanaldi berezia Basteron, eguerdiko 12:30ean hasita.



Olagain txistulari elkarteko kideak Santa Zezilia eguneko kalejiran.

2015a urte berezia izaten ari da Andoainen eta baita 1615. urtean burujabetza lortu zuten beste zenbait herritan ere. Ekitaldi ugari izan dira urte osoan zehar, eta mendeurrenari amaiera emateko Olagain txistulari elkarteak Andoingo Udalaren laguntzarekin Txistu-

tuaren soinuez, herri-zubiak” kontzertu berezia antolatu du igande honetarako. Olagain elkarteko txistulariek, Andoain bezala burujabetza lortu zuten beste herrietako txistulari eta musikariak gonbidatu dituzte Basterora. Gonbidapena onartu dute Alegia, Beasain, Aduna, Altzo, Amasa-Villabona,

Zizurkil eta Urnietako txistulari eta musikariak. Guztiak ere Joxean Paskualen zuzendaritzapean arituko dira. Hauexek dira parte hartzaileak guztira: Alberto Agirre abesbatza, Alegiko Txintxarri abesbatza, Andoingo Axeri dantza, Andoingo erraldoi eta buruhaundiak, Andoingo txalaparta es-

kola, Andoingo Urki euskal dantza taldea, Beasaingo txistulariak eta Urnietako Txanbolin txistulari taldea. Haiekin batera Loatzo Musika Eskola-kideak: Amasa-Villabona, Aduna eta Zizurkilgo bibolinjoleak, Aduna, Altzo, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo txistulariak eta Amasa-Villabona eta Adunako trikitilariak. Musika festa horretan partaide izango dira honakoak ere: Asier Gerrero perkusiojolea, Ion Beloki eta Jon Eskudero bertsolariak, Jon Iraola albokaria, Edorta Setien, Aingeru Zabala, Oskar Zurdo, Mikel Arreondo eta Eugenio Delgado osaturiko metal boskotea, Miren Mujika pianojolea eta Sarasola anaiak dultzaineroak.

Sarrerak salgai daude Bastero Kulturguneko leihatilan eta Kutxabanken zerbitzuen bidez 5 euroko prezioan.

Hitzorduak Gabonen atarian

Olentzero eta Mari Domingi Urnietara iritsiko dira abenduaren 23an, eta Andoainera 24an. Ekitaldi majiko horrez gain, bi herrietan hitzordu ugari iragarrita daude.

[GEHIGARRI BEREZIA]

San Tomas eguna Urnietan

Urnietan Inñistorra ospakizuna antolatzen ari dira, beste urte batez. Usadiozko Sagar-do Lehiaketaren bueltan dozenaka herritar hurbilduko dira Kontzejupera.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Laisterka urte zahar egunean

Abenduaren 31n Urte zahar eguneko San Silbestre lasterketa egingo da. Andoainen goizeko 11:30ean hasita eta Urnietan arratsaldeko 16:00etan hasita.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Hamahiru abizen urnietar Saroben

Ostiral honetako emanaldian hamahiru aktore urnietar izango dira Sarobeko oholtzaren gainean, iluntzeko 20:00etan hasita.

Hauexek, aktoreak: Mikel Agirregomezkorta, Gentzane Belaustegi, Koro Berasategi, Pili Brandariz, Diana Durán, Juankar Erasun, Aritz Gonzalez, Conchi Gonzalez, Lupe Herrero, Julio Nogales, Xabier

Odriozola, Ixidro Salinas eta Gentzane Unanue; bakoitzaren proposamen pertsonaletik abiatuta ontzen ari diren talde lan intimista eskaintzeko prest.

Antzerki tailerra sortu zenez, Agirregomezkorta izan da

bertako zuzendaria, baina aurreten beste proiektu batzuetan murgilduta denez, Kike Santiagok hartu du bere lekua. Emanaldiaren azken harimuturrak lotzen ari dira egunotan.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Andoain, 400 iruditan

Salgai 20€
ATARIA, BASTERO, DELCADO, ERNAITZA, STOP

Gure herriko soinu banda

Salgai 15€
DELCADO, ERNAITZA, STOP

Udal antzerki tailerraren emanaldia, ostiral honetan

Aurten iritsi zara, nola aurkitu duzu taldea?

Kike Santiago. Hasteko, esan nahiko nuke niretzat pozgarria dela, herrian antzerki talde bat egotea, hori izan baitzen Sarobe eraikitze arrazoietako bat. Aurreko urteetan Mikelekin egin zituzten lan guztiak ikusi nituen eta pixka bat ezaguna nuen taldearen dinamika. Aktore guztien modura hauek ere beraien zailtasun pertsonalak badituzte, baina zailtasun horiekin lan egitea erraza suertatzen ari zait. Proposamen berriei irekita ikusten ditut eta horri esker iruditzen zait maila onera iritsi gintezkeela.

Nola diseinatu duzu ikasturtea?

K. S. Hiru etapa aurreikusi ditut. Lehenengoan aktoreen formazioan zentratuko naiz. Aktoreak erabiltzen duen erreminta, bere arima, bere emozioak dira, eta hori adierazteko, kontrolatu eta ezagutu behar duen gorputza dauka, emozio horiek ikusleengan proiektatzeko gaitasuna izateko. Geldirik egonagatik barrutik sentitzen ari den pertsonengan majia dago. Beraz, lehen hiru hilabete hauetan gorputza landu dugu, akzio fisikoa, bakoitzaren historia pertsonaletik abiatuta. Bigarren hiruhilabetean, kaleko akzioa landuko dugu. Kalea hartu daiteke, akrobazia eginez, baina, baita ere, izkina batean gag simple bat eginez. Guzti hori landuko dugu. Azken hiruhilabetean eszenaratzean zentratuko gara. Momentu honetan erabaki gabe daukat zer lan eskainiko dugun, baina, ikasturtean zehar sortzen den materialak zeresan handia izango du azken taularatze horretara iristeko prozesuan. Daukaten jarrerarekin esango nuke hurrengo bi faseak errazagoak egongo zaizkiela.

Zer ikusiko du ostiralean Sarobera hurbiltzen den ikusleak?

K. S. Ostiralean ikusiko dute, aktoreek majia sortzeko duten gaitasuna oso elementu gutxi erabiliz, adibidez, eszenografia, lurtean dauden egunkarien orriez osatutakoa izango da. Energia handiko taldea da. Horri esker, entsegu saio gutxirekin 45 minutu inguruko lan duin bat egitea lortu dugu. Baina, jakin behar dute ez dela ohi-



Kike Santiago zuzendaria.

ko emanaldia, baizik eta klase ireki bat. Aktoreekin egongo naiz, eta akast bat egiten den unean jendaurrean zuzenduko dugu naturaltasun osoarekin. Horrela, ikusleak ere pertsonaiak nola lantzen diren ikusteko aukera izango du.

Zein izango da ikuskizunaren haria?

K. S. Poema bana aukeratuko eskatu nien, gizonezkoek emakume batek idatzitakoa eta emakumeek gizonezko batek idatzitakoa. Bakoitza iritsi zen berak aukeratutako poemarekin, eta errezitatzen hasi orduko moztu eta hankaz gora jartzen nituen, hasieran, beraiek ez zuten ezertxo ere ulertzen, baina, ikuspuntua aldatu zutenean oso modu naturalean joan da dena, eta poema guzti horien elkarlantzetik sortutakoa da ostiraleko ikuskizuna.

Zuzeneko musika ere izango da.

K. S. Bai, aktoreek aukeratu eta ekarri dituzten inguruko musikariak izango dira gurekin. Musikaren bitartez ikuskizuna indartu nahi dugu. Horretarako musikaria aktorearen zerbitzura jarriaz. Ez da ikuskizunerako propio sortutako musikarik izango, baizik eta, musikari bakoitzak egindako proposamenez aurreratutako zatitxoak.

Ikuslearentzat ulerterreza izango al da?

K. S. Oso erraz sartuko da ikuskizunean. Posizio ezberdin batean aurkituko dituzte aktoreak, baina, ikuskizunak daukan presentzia eszenikoa eta indarrak segituan harapatuko du ikuslea. Elkarrizketarako eszenikoz osatuta dago, baina, bakoitza banan bana hartuta, ulergarria, simplea da. Narratiba ere oso ulerterreza dela esango nuke.

Zanpatuz mendi elkartearen urteko batzarra Lekaion

Urteko batzarra deitu dute

Zanpatuz mendi elkarteak, urteko batzarra eta 2016ko aurkezpena ostegun honetan egingo ditu Lekaion, iluntzeko 19:30ean hasita. Aurtengo irteeren errepaso egingo da, 2016ko ekintzen aurkezpena, federatzeko informazioarekin batera, eta bukatzeko, Alberto Inurategiren 'Paiju Peak' dokumentala eskainiko da. Bukeraren pintxoak eskainiko dira gerturaz diren guztientzat.

Elkarteak urtea betetzen du, eta egitaraua bete prestatu dute, ekitaldira ahalik eta mendizale gehien bertara daitezela. Bukatzean urtean egindako aktibitateen errepaso egingo da aurren-aurrena, argazki batzuekin lagunduta. 2015a bukatzeko aste pare bat falta diren honetan, Zanpatuz-ek azken irteera bat antolatuko du hilaren



26rako. Larunbat iluntzean Besabitik Adarramendira abiatuko dira. Hitzordua 19:00an izanen da Besabin, eta bezperan ilargi bete bada ere, buruko argia eramatea aholkatzen dute elkarte kideek.

2016 urteari begira aurreikusita dauden ekintzen inguruko informazio osatua emango da ondoren. Elkartearen asmoa hilabetero aktibitate bat egitea da, eta batzarrean hilabete bakoitzean zer antolatuko den jakin ahal izango da. Horrekin batera, elkarte kide egiteko, edo federatu txartela egiteko

eman beharreko pausoak azalduko dira. Dagoeneko bazkide eta federatu direnek lizentzia berritzeko zer egin behar den ere azalduko dute (Espainiako FEDMErekin federatzeko aukera emango da, hainbat aterpetxeetako deskontuak baliatzeko). Aintzat hartu behar da elkarteak 150 bazkide pasa dituela, eta 70 baino gehiago federatuak direla. Kopuru polita, urte bakarra duen elkartearentzat.

Bukatu aurretik, Alberto Inurategi Pakistango Paiju Peak mendira egindako espedizioaren pelikula eskainiko dute.



Gabonak Urnietan 2015

Abendua

- 19** 17:00 GABONETAKO AZOKA Salazarrek antolatua (gopei Antsoleta Iratxeak)
- 20** 14:00 / 18:30 IZENA SARBAN (Candela del Valle)
- 21** 17:00-21:00 SAN XOMAS gozua (Musika Antsoleta Sariaren proiektu)
- 22** 17:30 Arrieta eskolako ikasleak BAZO BAZO
18:00 COFFEE Kalkun (Luzen proiektu)
19:00 Osozainak osozainaren (Esterika Lekuak)
- 23** 18:00 OIHITZEO (DA NAIH DOMINOTEI ITORRESA (Imanolena garraioa) (gopei Gertze) (Iñigoek antolatua))
- 24** 13:00 OLAGOIN SUSTAIK OLAGOINERAKO
14:00 OLAGOIN SUSTAIK OLAGOINERAKO (Iñigoek antolatua)
- 27** 17:30 BURDIN (Iñigo) (Sarbana) 'White Dick' sai antze (antze)

- 29** 18:00 COFFEE & OLAGOIN (Sarbana)
- 30** 18:00 FANTASIA BURDINERAKO (Sarbana) 'Magic' Sari Antsoleta
- 31** 14:00 SAN XOMAS (Candela del Valle) (Sarbana)

Urtarila

- 2** 14:30-18:30 IZENA SARBAN (Sarbana)
- 3** 14:00 / 18:30 IZENA SARBAN (Sarbana)
- 4** 11:00-13:00 / 16:30-19:00 BURDINERAKO (Sarbana)
- 5** 14:00-17:30 OLAGOIN SUSTAIK OLAGOINERAKO (Sarbana) Sari Antsoleta
18:00 OLAGOIN SUSTAIK OLAGOINERAKO (Sarbana) Sari Antsoleta

GAZTEKUNO PROGRAMAZIOA

Abendua

- 21** 17:00-19:00 (Sarbana)
- 22** 10:00-13:30 OLAGOIN SUSTAIK OLAGOINERAKO (Sarbana)
- 23** 09:30-13:30 BURDINERAKO (Sarbana)
- 28** 10:00-14:00 BURDINERAKO (Sarbana)

- 29** 13:30-17:30 OLAGOIN SUSTAIK OLAGOINERAKO (Sarbana)
- 30** 10:00-13:00 OLAGOIN SUSTAIK OLAGOINERAKO (Sarbana)

Urtarila

- 4** 09:30-14:00 BURDINERAKO (Sarbana)



SORMEN TXOKOA LEKAIKON (2007-2010 urte bitartekoak)

Abenduak 22, 23, 28, 29 eta 30 11:00-13:00

SORMEN TOPAGUNEA LEKAIKON (2004-2006 urte bitartekoak)

Abenduak 22, 23, 28 eta 29 17:30-19:00

DANTZA GARAJUDE TAILER IREKIA


Abenduak 22, 23, 26, 28, 29 eta 30 10:00-12:00 (antzerki-irratia)

Abenduak 30

12:00 OLAGOIN SUSTAIK OLAGOINERAKO (Sarbana)

*Gabon zorianatsuak
eta urte berri on*

Numero: 091 441 00 40-42
E-mail: gabon@urrietan.euzkadi.net
Telefonoa: 091 441 00 40-42
E-mail: gabon@urrietan.euzkadi.net



Euskararen eguna Egapen



Jokin Lizeaga ikasleengana hurbildu zen, Porrotx pailazoa bezala.

Euskaratik eta euskaraz, horrela sortu zen Egape ikastola. Abenduaren 3a, Euskararen eguna egun seinalatua da eta aurten ere jarduera ugari burutu dituzte. Kantu txapelketa, jolasak, txokolatada

eta bereziki Porrotx pailazoren eta Jokin Lizeaga mendi-korrikalariaren bisita. Datorren ikasturtean Egape ikastolak 50 urte beteko ditu. Urte seinalatua izango da.

Garmendiari omenaldia

Larunbat honetan, Urnieta Balerdi Harategia eta Zarautz senior mailako partidaren atarian, UKEko sortzaile eta diruzain izandako Josu Garmendiari omenaldia eskainiko diete. Bere familiak Urnieta eskubaloaren estima eta adiskidetasun osoa jasoko dituela iragarri du UKEk.

ESKUBALOI KANPUSA

UKEk Gabonetan eskubaloi Kanpusa zabalduko du, eta dagoeneko izen-ematea irekita dago. Abenduaren 28, 29 eta 30ean izango da, eta benjamin eta alebin mailakoei zuzenduta dago. Inskripzioa kiroldegian bertan egin daiteke. Prezioa 5 eurokoa da.

Herri kirol jaialdia

Abenduren 19an, 12:30ean hasita Leaburuko Apatta industrigunean kokaturiko Diva enpresaren pabiloian herri kirol jaialdia egingo dute, Juan Iguaran urnietarrak antolatuta:

- Harrijsotze txapelketa. Gorputzaren dobleko pisurakin: Izeta I., Telleria II., Urrutia eta Otaegi.
- 2015eko urrezko harrija-

sotze txapelketaren final aurrekoa: Izeta II., Telleria IV.

- Aizkolarien arteko desafioa: Unai Zabala, Julian Larrea eta Joaquin Garmendia.

Sarrera eta pintxoak, dohainik. Ospakizuna, gainera, Joxe Mari Mujika eta Juan Mari Bengoak alaituko dute.

Abenduaren 23an Berrasoeta parkean harrera ekitaldia

Olentzero eta Mari Domingi

Datorren abenduaren 23an, Olentzerok eta Mari Domingik merezi duten harrera izan dezaten, Egape dantza taldeak "Olentzero eta Mari Domingi badatoz ..." egitasmoa bultzatuko du. Ziur, beste behin ere,

ahaztezina izango dela urnietar txiki eta gaztetxo askorentzat. Egapeko helduen dantza taldeak, Txanbolin txistulariz eta herriko trikitilariz lagunduta, Berrasoetako parkean Olentzero eta Mari Domingiri

harrera egingo diote menditik jaisten direnean, arratsaldeko 18:00ak aldera. Kalejira 18:45ak aldera amaituko da San Juan plazan. Euriarekin, azken ospakizuna Egape ikastolako jolastokian egingo dute.

Ostegun honetan aurkeztuko dute udaletxean, 17:00etan

Historia, ikasleentzat

"Urnieta, lurretik hiribildura (1402-1615)" liburuxka ostegun honetan aurkeztuko dute udaletxeako pleno aretoan, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Berrogei orrialdeko liburuxkan, Rosa Ayerberen liburuaren sintesia egin dute euskaraz. Finean, Urnietak hiribildu izaera lortu zueneko efemeridea kontatzen da.

Liburuxka Egape ikastolako eta Salesiar ikastetxeeko DBH2 mailako gazteei zuzendurik dago, baina nahi duenak




Urnietak 1615ean hiribildu izaera lortu zueneko efemeridea kontatzen da, ikasleei egokitutako bertsiotan

urnieta.eus webgunetik esku-ratu ahal izango du.

Aurkezpenean Mikel Pagola alkateak, Rosa Ayerbe egileak eta Nagore Irazustabarrena itzultzaileak parte hartuko dute.

EGUBERRIEN ATARIKO EMANALDIA SAN MIGEL ELIZAN







IPUIN FAKTORIA

"Ezazu irakurri eta gero...
karririk ez du, baina irakurri
hitzak hitzaren bitartez."

Urnieta, 11. Berrak. 48100. 945 43 27 19
www.urnieta.eus
08/10/2015 10:00

E





*Galvan
Serravallo*

**Birrelli
Amopa**

Kale Nagusia, 6 - Andoain - 943 591 224



Hodeiren istorioa



aurre egiteko laguntza ere. "Istorio honekin erakutsi nahi dugu laguntzarekin, gogoarekin eta indarrarekin bidea errazagoa dela", adierazi zuen Almudenak.

Gainera, tamalez, Hodei ez dela fizkiozko pertsonaia eta Hodei bezalako haur asko daudela azpimarratu zuen Pagolak. Ildo horretan, ikaste-txeetan gaia landu beharko litzatekeela eta minbiziaren inguruko unitate didaktikoak sortu beharko liratekela uste du, haurrek errealitatearen kontzientzia txikitatik izan dezaten.

"Super H, hontz zuriaren lurraldean" liburua aurkeztu du Urnietako SuperH taldeak, ikerkuntza onkologikoan lagundu ahal izateko. Momentu honetan, San Juan de Dios ospitaleko eta Biodonostiako ikertzaileekin ari dira lanean, eta horretan jarraitu dezaten laguntza ekonomikoa lortu nahi dute. Ikerkuntzan laguntzea ezinbestekoa dela dio Almudena Salasek, batez ere gaixotasun arraroetan: "Zergatik da arraroa? Ez delako ezaguna. Arraroa sentitzen zarenean, bidea zailagoa da, baliabide gutxiago dagoelako". Horrekin batera, gaitz honen inguruan herritarrak sentsibilizatu nahi dituzte.



HAMAR EUROAN SALGAI

Euskaraz eta gaztelaniaz 4000 ale argitaratu dituzte. Gaztelaniaz, Euskal Herritik kanpora begira; Bartzelona, Granada eta Valentzian familia asko dituztenez, bertan ere liburua zabaldu nahi dutelako. Durangoko Azokan salgai egon dira. Hemendik aurrera, Urnietako Eder dendan eskura daitezke. Aurrerantzean salmenta puntu gehiago zehaztuko dituztela jakinarazi dute.

ERAKUNDE EZBERDINEN BABESAREKIN ARGITARATU DA

Foru Aldundiaren eta Urnieta, Hernani, Astigarraga eta Lasarte-Oriako Udalek bat egin dute proiektuarekin. Hala, liburuaren aurkezpenean izan ziren Idoia Garcia Biodonostiako ikertzailea, Maite Peña Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatua eta Mikel Pagola, Jesus Mari Santos, Luis Intxauspe eta Jesus Zaballos eskualdeko alkateak.

Maite Peñak adierazi zuen erakundeek sustatu egin behar dutela herritarren partaidetza eta elkarten bidezko lana. Super H taldeari meritua aitortu zion, beraien "babes osoa" adieraziz. "Zorixarrez, minbiziak toki handiegia du gizartean eta hori oso gogorra da. Gogorragoa da, hala ere, haurrez hitz egiten badugu. Gaur hemen gaude ikerketa delako aurre egiteko modu bakarra. Mila esker SuperH taldeari, egiten duen lanagatik". Horrez gain, ikertzaileen lana ere goraitatu zuen eta indarrak batzea "oso garrantzitsua" zela azaldu zuen.

MINBIZIAREN AURREAN, LAGUNTZA

Miren Amuriza bertsolariaren ipuina eta Almudenaren ilustrazioek osatzen dute liburua. "Emaizta honetan hitza eta irudia sentimenduarekin uztartzen dira. Bizipenak islatzen dira, eta hori guztiok nabaritutako duzue", adierazi zuen Mikel Pagola alkateak liburuaren aurkezpenean.

Ipuinak bi zati ezberdin ditu; bata mundu errealarari lotua, eta bestea, ametsen munduari lotutakoa. Protagonistak Hodei izena du. Egun batean, lagunekin jolasten ari dela, mina hartzen du. Gurasoek medikuarenera eramandakoan, proba batzuen emaitzak ondo ez daudela ikusi eta minbizi diagnostikatzen diote. Hodeiek ez du oso ondo ulertzen zer gertatzen den eta bere ametsetako munduan murgiltzen da. Bidean, zenbait oztopo bilatzen ditu, baina baita horiei

Horra! Horra!

Iyuya Urrutia Goya | Iritzia Amasa-Villabona

Nahiz eta datuak egunero aldatu, gure ikazkinaren ibilerak baditu bai zenbaki batzuk Interneteko mundu birtualean. Sareko bilatzaile arrakastatsuenak, Googlek, 440.000 emaitza bueltatzen dizkigu, bilatzaileko laukitxoan Olentzero hitza tekleatzen badugu eta gutxiago, noski, beste aldaera batzuk aukeratzen baditugu: Olentzaro, Olentzago, Orantzaro, Onontzaro, Onentzaro,...

Interneten hamaika aipamen daude, euskal kondaira honen inguruan: haurrentzako gutunak, postalak, bideoak, lan didaktikoak, artikuluko zientifikoak, jolas interaktiboak, eztabaida etnografikoak... Hobe dugu Olentzeroren Interneteko arrastoa hemen uztea, ustekabearen egoera konprometitu batean harrapatu baino lehen!

Ikusitako irudi, eduki eta informazioen arabera, badirudi Olentzeroren mitoa askotan Euskal Herriko Papa Noel gisara moldatu nahi dugula, azken urteotako globalizazioaren edo amerikanizazio kulturalaren eraginez; Interneten begiratu besterik ez dugu!

Ezer gutxi geratzen zaigu, mende hasierako Olentzero eskale, mozkor eta zakar hartatik. Euskal Herrian desagertzen ari den susmoa dut, azken urteotan hedatu den Olentzero zintzo, garbi eta eskuzaballak lekua hartu diola dirudi.

Egia da bilakaera handia izan duela Lesakan jaio eta Iruñean plazaratu zen pertsonaia honek. Hasieran, Frankismo garaiko urteetan debekatuta egon zen, euskal abertzaletasunaren ikur kontsideratzen zutelako. Gero, 1956an Iruñean aurkeztu zuten, lehen aldiz, eta hamarkada hartan Euskal Herrian zabalduz joan zen tradizioa; neurri handi batean, ikastolen gizarte-mugimenduari esker.

Ni oso pozik nago Gabonetako geure sinboloa badugulako, baina hasierako pertsonaiak eta gaur egun ospatzen dugunak antz gutxi dutela ere esan behar dut. Olentzeroren mitoa oso lotuta egon da naturarekin, euskaldunok mendeetan hala bizi izan baikara. Nahiz eta gaur egun asko hiritartu, bere jatorrian neguko solstizioarekin lotutako errito bat zen, hau da eguzkiaren etorrerarekin! Gero, ordea, eliza katolikoa hartaz jabetu, eta Olentzero mesiasen berriemaile bihurtu zuen, bide batez, Olentzero kristautuz; nire ustez, okerrerako!



Gazte eta helduen ohitura zena, haurrei begira egiten hasi zen gero. Askok, Olentzero euskalduntzat eta Erregeak espainoltzat hartu, eta buruz buru jarri izan dituzte eta jartzen dituzte. Lehia horretan, ordea, orain ere haurrak garaile, opari bikoitza izaten baitute.

Hurrena bikotea bilatzea izan da: Mari Domingi dugu emakumezko pertsonaia berria. Olentzerorekin batera ekartzen omen ditu opariak edo gutxienez laguntzen dio. Mari Domingi nor zer ez dugu oso garbi, baina Olentzero gizonezkoa denez, berdintasunaren bidean emakumezko pertsonaia bat jarri behar izan diogu. Baina hau beste eztabaida bat da!

Telebistak, berriz, pipa kendu dio, ez baita batere itxura onekoa, erretzeko debekuen aroan haurren aurrean "pipa ortzian duela" ibiltzea. Eta, jakina, Bilboko Olentzero berritzaileak, ez ardo botilarik eta ezta arrautzarik ere. Hemendik aurrera geratzen zaiguna da, dietan jarri, gorputz lirain eta tripa handirik gabe, Gutagutarrak teleailean agertzea, bere izen txarra ezabatzeke.

Oraindik badugu lana Olentzero hau otzantzen! Egia da ohiturak moldatu, egokitu eta erabiltzean aldatu egiten direla. Beharrezkoa izaten da, ohitura zaharrek eta tradizioa bizirik irauteko modernizazio dosi batzuk gehitzea, baina garrantzitsua da, era berean, geure ondareari eustea.

Gaur egun, hiritarrak ez gaude naturarekin hain lotuta, baina gustatuko litzaidake haurrei gure ospakizuna azaltzen diegunean hau guztia ere transmititzea. Jakina, ez dugu ahaztu behar hau biltzen duen magia eta euskaldun-sena. Beraz, sortzen ari garenaz pentsatuz eta izandakoari ere begiratu ospatzea nahi nuke; eta ez janzkera, moda, kontsumo, interes eta abenduko joera estilistikoaren arabera panpin bakarrik bihurtzea.

Gabon zoriontsuak!

TRANSPORTES Lakunza

Eguneroko zerbitzua Bizkaiara

609 434 910 - 609 401 884 - Tel.: 943 693 212. Faxe: 943 694 924
www.transporteslakunza.com - info@transporteslakunza.com
A Industrigunea - 16. pabilioia, 20159 ASTEASU
52 P.K., 20150 AMASA-VILLABONA

ALBIZLU

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Kale Nagusia, 2 • Tel.: 943 693 131 • 20150 VILLABONA



San Silbestre lasterketa, goizez Andoainen

MENDEURRENAREN AZKEN EKITALDIA IZANGO DA, KIROLA EGINEZ URTEARI AMAIERA EMATEKO BALIAGARRIA IZANGO DENA. IZENA EMATEKO AUKERA ZABALIK DAGO ANDOAINARRAK400.EUS WEBGUNEAN, ETA BAITA EGUNEAN BERTAN ERE.



Abenduak 31, osteguna. 11:30.

Andoaingoa lehen edizioa izango da. Lasterketak 5 kilometroko luzera izango du, zirkuito berari hiru itzuli emanaz. Zumea plazan hasi eta amaituko da, goizeko 11:30etan hasita. Bost euro ordaindu beharko da, eta izen-ematea hilaren 29an kiroldegian (10:00-20:00) eta egunean bertan egin ahal izango da. 16 urtetik gorakoek parte har dezakete.



Lasterka itzuli elkartekoek erronka bota diete andoaindarrei, "400 baitz!".

LEHEN KROS HERRIKOIA



Abenduak 27, igandea

11:30 Haurrak. 500 m.

11:40 Gazteak. 2 km.

12:00 Kadete, Jubenil, nagusiak. 6 km.

Asteasuko Udalak lehen kros herrikoia solidarioa antolatu du. Izen-ematea 5 eurokoa da, eta haurren kasuan euro bat. Hamaitakoa eta zozketa partaideen artean.

Lasterketa Asteasuko plazan hasi eta amaituko da. Izen-emate ordua 11:30ak arte zabalik izango da.

Arratsaldez lasterketak Zizurkilen eta Urnietan



Abenduak 31, osteguna.

16:00. Urnieta. San Juan plaza

Lasterketaren hirugarren edizioa, Poxta Zahar gazte elkartearen eskutik. Antolatzaileek mozorrotuta ager-

tzeko deialdia luzatu dute, aurten ere. Hurrek bi itzuli egingo dizkiote plazari. Eta, jarraian, helduak. Bost kilometroko ibilbideari bi itzuli eman beharko dizkiote.



Abenduak 31, osteguna.

16:00. Zizurkil eta Villabona artean

Zizurkilgo Urkamendi elkartearen paretik irtengo da Zunbeltz eta Urkamendi elkarrekin antolatzen dutena.

XXXII. Urte Zaharreko lasterketa:

16:00 Ibilbide txikia, 2 buelta.

16:10 Ibilbide txikia, 4 buelta.

16:28 Helduak, ibilbide laburra.

16:30 Helduak, ibilbide osoa.

KEJNU

ERREKAMEN
PANTAILAN
BUKARRA ZARALE

Las Agotes 11. Andoain
943 592 459

Ernaitza

liburudenda

Sabon zurritsuak
opa dituzuegu!!
Urteberri on!!

Zumea 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com



Joan badoa urtea, badator beste bat berria

Aduna

Abenduak 24, osteguna

Goizean eskolako haur, guraso eta irakasleak herrian zehar kantari. Hamai- ketakoa, eta eguerdian Olentzerok utzi- tako opariak jasoko dituzte.

Amasa-Villabona

Abenduak 17, osteguna

18:00 Loatzo musika eskolako kide- en Eguberrietako emanaldia Gurean.
18:30 'Herriaren goilara' liburuaren aurkezpena.
19:00 I. Argazki rally gastronomiko- ren sari-banaketa. Ondoren, pintxo pote herrikoa.

Abenduak 17-Urtarrilak 10

Patinatzeko pista Errebote plazan. In- formazio gehiago, 6. orrialdean.

Urtarrilak 7ra arte

10:00-21:00 Amasaren 400. urteurre- neko erakusketa Amasako Kul- tur Etxean.

Abenduak 18, ostirala

18:30 IV. Antton Pebet memorialeko final laurdenak Bearzana pilo- talekuan.
22:30 Aljibe gaua. Gilkitaroren an- tzezlaneta eta Bihozkadaren mu- sika emanaldia. Barra zerbitzua egongo da. Sarrera: 5 euro.

Abenduak 19, larunbata

10:00-19:00 Betiko Market azoka Berdura plazan. Artisautza azoka: eskuz egindako arropak eta opilak, xaboiak, bitxiak, ber- rerrabilitako altzariak...
19:30 SOS Sahararen aldeko elkarta- sun kontzertua. Andoaingo abesbatza eta Eresargi abesba- tza Jesusen Bihotza parrokiari. Bildutako dirua Tindufeko kan- pamenduetara bidaliko da.

Abenduak 20, igandea

10:30 IV. Antton Pebet memorialeko final laurdenak Bearzana pilo- talekuan.

Abenduak 21-31

10:00-12:00 Kultur Etxean 9-13 urte bitartekoentzako tailer musika- la, Eresargiren eskutik. Irakas- leak: Klara Mendizabal eta Xa- bi Urtasun. Izena emateko az- ken eguna abenduaren 18an 'Azkar' zapata dendan.


Abenduak 22, asteartea

16:30-18:00 / 18:00-19:30 Gabon parkea Bearzana pilotalekuan 2-9 urte bitarteko haurrentzat.

Abenduak 23, asteazkena

16:30-18:00 / 18:00-19:30 Gabon parkea Bearzana pilotalekuan 2-9 urte bitarteko haurrentzat.

EGUBERRIETAKO HITZORDUAK AIZTONDO BAILARAN



Aiztondo bailarako Gizarte Zerbitzuen eskutik 2-11 urte arteko haurrentzat aisialdia osatze- ko aukera,
Ordutegia: 08:30-13:30.
Prezioa: 50 euro.
Izen-ematea: 943 69 39 30.

Abenduak 28, astelehena

Malabareak, hamaiketako eta psikomotrizitatea.

Abenduak 29, asteartea

Sukaldaritza, hamaiketako eta eskulanak.

Abenduak 30, asteazkena

Olentzero, hamaiketako eta Gabon festa.

Abenduak 24, osteguna

Goizean zehar, ikastetxeetako ikasleak nahiz beste hainbat talde herrian barre- na kantuan ibiliko dira.

18:00 Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria Otsabi auzoan. Ondoren, Errebote plazaraino kalejira musikari eta dantzari- ez lagunduta.

Abenduak 27, igandea

17:00 Oliver magoaren emanaldia Gurea antzokian. Sarrera: 5 eu- ro.

10:00 IV. Antton Pebet memorialeko finalerdiak Bearzana pilotale- kuan.

Abenduak 28, astelehena

10:00 IV. Antton Pebet memorialeko finalerdiak Bearzana pilotale- kuan.

16:30-18:00 / 18:00-19:30 Gabon parkea Bearzana pilotalekuan 2-9 urte bitarteko haurrentzat.

Abenduak 30, asteazkena

16:30-18:00 / 18:00-19:30 Gabon parkea Bearzana pilotalekuan 2-9 urte bitarteko haurrentzat.

Abenduak 31, osteguna

18:00 Argiztatu erabakia ekimena, Gure Esku Dago dinamikak bi- deratuta Zubimusun.

Urtarrilak 2, larunbata

16:30 IV. Antton Pebet memorialeko finala Bearzana pilotalekuan.

Urtarrilak 4, astelehena

16:30-18:00 / 18:00-19:30 Gabon parkea Bearzana pilotalekuan 2-9 urte bitarteko haurrentzat.

Urtarrilak 5, asteartea

Errege kabalgata, Amasatik Villabo- nako plazaraino.

Urtarrilak 12, asteartea

Oria elkartearen opari-txekeen zozketa.

Asteasu

Abenduak 19, larunbata

11:00 Truke azoka pilotalekuan.

Abenduak 20, igandea

18:00 Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa eta Euskal Herriko Txingara Txapelketa.

Abenduak 21, astelehena

IV. Gabonetako Atzapar Txapelketa. Haur eta helduentzat esku pilota eta pala txapelketaren hasiera.

Abenduak 22, asteartea

19:00 Kontzertua elizan: Ander Itur- zaeta asteasuarra organoan, ze- harkako flautez lagunduta.

Abenduak 23, asteazkena

17:00 Zinema: 'Olentzero eta Subila- ren lapurreta'.

Abenduak 24, osteguna

12:00 Olentzero eta Mari Domingi- ren etorrera frontoian. Goizean zehar ikasleak kantari.

Abenduak 26, larunbata

15:45 Euskal Herriko Mus Txapelke- tako kanporaketa.

Abenduak 27, igandea

11:30 Segundo Montes komunitate- ren aldeko I. Kros herriko solidarioa. Ondoren, pintxoak eta trikitixa.

Abenduak 28, astelehena

15:30 Nesken Pala Topaketa, alebin eta infantil mailakoa.

17:00 Clown-tu Kontari emanaldia eta merienda.

Abenduak 29, asteartea

17:00 Xaboi tailerra Lizardi Etxean.

Abenduak 31, osteguna

17:00 Urrezko Aizkoraren finalak pi- lotalekuan.

Urtarrilak 2, larunbata

19:00 Lorratzak taldearen kontzertua Lizardi Etxean.

Urtarrilak 4, astelehena

16:30 Zinema: 'Minions' eta 'Asterix eta Obelix bere maiestatearen esanetara'. Filmen artean, me- rienda.

Urtarrilak 3, igandea

10:00 IV. Gabonetako Atzapar Txap- elketaren finalak.

Urtarrilak 5, asteartea

Errege kabalgata, Kukute guraso elkar- teak antolatuta.

Larraul

Abenduak 24, osteguna

Goizez, eskolako haur nahiz herritarrak baserriz baserri kantari. Arratsaldean Olentzeroren etorrera.

Zizurkil

Abenduak 17, osteguna

17:30 Intujai antzerki taldearen ipuin kontaketa 6-9 urte bitarteko haurrei zuzendua, Atxulondon.

Abenduak 18, ostirala

17:30 Teodoro Hernandorena XIV. sari banaketa Atxulondon.

Abenduak 20, igandea

13:00 Miriam Ulanga organo jolearen kontzertua San Millan elizan. Oharra: Arantzazuko Ama eli- zako meza 12:00etan izango da.

Abenduak 21, astelehena

18:00 Txistorra-jatea, Elizpe jubilatuta elkartearen antolakuntzapean.

Abenduak 24, osteguna

Goizean zehar San Millan ikastetxe- ko umeez baserrietan abestuko dute eta Pedro Mari Otaño eta Zubimusu ikas- tetxeetako umeez Elbarrena auzoa alai- tuko dute. Ondoren, hamaiketako Ur- kamendi elkartean.

17:30 Urkamendi aldetik Olentzero eta Mari Domingi etorriko di- ra, Loatzo musika eskolako musikariez lagunduta. Plazan Bukalai dantza taldeko kideek dantzatu eta Loatzo musika es- kolakoek musika joko dute. Haur guztiek Olentzero eta Mari Domingi muxuak emate- ko aukera izango dute.

Abenduak 31, osteguna

16:00 Urtezaharreko XXXII. Laster- keta, Urkamendi eta Zubeltz elkar- teek antolatuta. Irteera eta helmuga: Urkamendi. 16:00, haurrak. 16:30 nagusiak.
18:00 Argiztatu erabakia ekimena, Gure Esku Dago dinamikak bi- deratuta Zubimusun.



Andoain

Abenduak 19, larunbata

Goizean gaztaina erreak Juanita Alkain plazatxoan eta Izartxo festa La Salleko jolastokian.

Eguerdian kale animazioa Kaletxiki Txarangarekin.

17:30 Etxeberrieta plazan Olentzero, gaztaina erreak eta txokolata-da.

Abenduak 21, astelehena

11:30-13:30 San Tomas eguna, txistorra postuak Juanita Alkain plazan.

Abenduak 22, asteartea

17:00 Zumba Gazte Lokalean.
19:00 Soinuak Musika eskolako ikasleen kontzertua Basteron.

Abenduak 23, asteazkena

09:30 Zesta eta eskupilota Arraten.
17:00 Antzerkia Gazte Lokalean.

Abenduak 24, osteguna

18:30 Olentzero eta Mari Domingi kiroldegiko zubitik barrena agertuko dira, eta txondorra Espigoian kokatuko dute. Ondoren, Juanita Alkain plazarin joango dira.

Abenduak 26, larunbata

16:30 Futbolina eta mahai tenisa Gazte Lokalean.
20:00 "Circo Los" (Brasil), IkusZirkus Basteron.

Abenduak 27, igandea

16:30 Xakea Gazte Lokalean.
20:00 "Circo El Grito" (Italia), IkusZirkus Basteron.

Abenduak 28, astelehena

09:30 Gazte Lokalaren Olinpiadak Goikoplazan.
16:00 Gazte Lokalaren Olinpiadak Goikoplazan.
20:00 "Circo Elegants" (Katalunia), IkusZirkus Basteron.

Abenduak 29, asteartea

09:30 Street Art Gazte Lokalean.
17:00 Postre tailerra Gazte Lokalean.
20:00 "Sun magoa" (Euskal Herria), IkusZirkus Basteron.

Abenduak 30, asteazkena

09:30 Basket 3x3 Ondarretan.
17:00 Gazte asteko Amaiera festa Gazte Lokalean.

"TXISTUAREN SOINUEZ, HERRI ZUBIAK"



Abenduak 20, igandea

12:30. Bastero. Sarrera: 5 euro.
Andoaingo Olagain txistulari bandaren kontzer-

tua, mendeurrena ospatzeko antolatutako ekitaldi berezia. Orain 400 urte bere burujabetza lortu zuten gainerako herrietako musikariekin.

16:00-20:00 Gabonetako haur parkea Allurralden.

Abenduak 31, osteguna

Goizez, kale animazioa txistulari eta dultzaineroekin, Goikoplazatik Zumea plazaraino.

11:30 San Silvestre krosa Zumea plazan.

12:00 Pajeen irteera Errege Magoei zuzendutako eskutitzak jasotzeko.

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Gabonetako haur parkea Allurralden.

00:45 Urte zahar gaueko DJ festa Narroa plazan.

Urtarrilak 1, ostirala

Salda Adarra mendian.

Urtarrilak 2, larunbata

18:00 Trikitixa eta bertso poteoa.

Urtarrilak 5, asteartea

18:30 Errege Magoen etorrera Zumea plazan.

19:30 Goikoplazara iritsiera.

Urnieta

Abenduak 19, larunbata

17:00 Gabonetako azoka Egape ikastolako jolastokian.

Abenduak 20, igandea

16:00 / 18:30 Saroben zinea: Cancion del mar.

Abenduak 24, osteguna

12:00 Gabon-kantak Olentzerorekin.
16:00 Gabon abesbatzaren entsegua Lekaion. Ondoren, Gabon abesbatza kalez kale.

Abenduak 27, igandea

17:30 Moby Dick ikuskizuna Saroben, 6 urtetik gorakoentzat.

Abenduak 28, astelehena

10:00-14:00 Turroi eta gailera tailerra Gaztelekuan.

11:00-13:00 Haur txokoa Lekaion.

17:30-19:00 Gazte topagunea Lekaion.

Abenduak 29, asteartea

11:00-13:00 Haur txokoa Lekaion.

17:30-19:00 Gazte topagunea Lekaion.

15:30-19:30 Gaztelekua: Zinema Erreterian.

19:00 Gospel-a elizan: The Lord.

Abenduak 30, asteazkena

10:00-15:00 Txuri Urdinera Gaztelekuarekin.

11:00-13:00 Haur txokoa Lekaion.

12:00 Dantza tailerrekoen erakustaldia Saroben.

18:00 Magic, Sun Magoa Saroben.

Abenduak 31, osteguna

16:00 San Silbestre lasterketa.

Urtarrilak 1, ostirala

Salda Adarra mendian.

Urtarrilak 2, larunbata

16:30-18:30 Zirko tailerra kiroldegian.

Urtarrilak 3, igandea

16:00 / 18:30 Saroben zinea: Box-troll.

Urtarrilak 4, astelehena

09:30-14:30 Adarrara irteera Gaztelekuarekin.

11:00-13:00 Puzgarriak kiroldegian.

16:30-19:00 Puzgarriak kiroldegian.

Urtarrilak 5, asteartea

16:00-17:30 Errege Magoei harrerara elizan.

18:00 Errege Magoen desfilea: Ohiko ibilbidea.

19:00 Opari banaketa 0-6 urte arteko haurrei, Udaletxe azpiko arkupeetan.


Agenda: www.aiurri.com

AIURRI
 Zumea 18
 Andoain
 943 59 37 77
aiurri
 Zorionak eta Urteberri on!



Kriseiluak

URTE ZAHAR EGUNEAN,
ZUBIMUSU ZUBIAN.



Aiztondoko Gure Esku Dago ekimenak, urtea amaitu aurretik, ekimen berezia prestatu du Zizurkil eta Villabona lotzen dituen Zubimusu zubian. Urteberriari desioak eta ametsak eskatuz, abenduaren 31n, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, argizatutako kriseiluak aire-ra botako dituzte bertan bildutako herritarrek. Aiztondoko zerua kolorez jantziko da, beraz, urtea amaitu aurretik. Kriseiluak Aiztondo bailarako herrietako denda ezberdinetan eskuratu ahal izango dira 2,5 euroko salneurrian.

Ekimena girotu asmoz, Aiztondoko herritarren artean osatutako bideoa ere plazaratu du eskualdeko Gure Esku Dago ekimenak. Bailarako hainbat herritarrek hartu du parte bertan: haur, gazte nahiz heldu – eskualdean bertan jaiotakoek nahiz kanpoko lurretarik etorritakoek-. Arrakasta beroa izan du www.aiurri.com gunean ere ikus daitekeen bideoak, ikusle asko izan duelarik. Ilusioa eta kolorea ekarriko ditu eskualdera urteko azken arratsaldeko hitzorduak.

Patinaje pista, Gabonetako berrikuntza nagusia

PATINAJE PISTA, GABON PARKEA, HERRIAN EROSKETAK EGITEN DITUZTEN BEZEROEI ZUZENDUTAKO ZOZKETAK... HERRIAN EROSKETAK EGITEAK BADU SARIRIK.

Eguberrietan herri giroa sortu nahian, azken urteotan bezala, haurrei zuzendutako Gabon parkea jarriko da Udaleko Gazteria sailak bideratuta Bearzana pilotalekuan, abenduaren 22, 23, 28 eta 30ean eta urtarrilaren 4an, 16:30etatik 18:00etara eta 18:00etatik 19:30etara. Gabon parkearekin batera, ordea, Oria merkatarien elkarteko kideek dakarte aurtengoan berrikuntzarik nagusia, Errebote plazan zabalik baita patinatze pista urtarrilaren 10a arte. Txandak ordu erdikoak izango dira eta pista erabiltzeak 4 euroko prezio arrunta izango du (adin txikiko eta 65 urtetik gorako pertsonak 2 euro). “Hala ere badago %50eko deskontua lortzeko aukera: Oria elkarteko bazkide diren hiru denda ezberdinetan zerbait erosiz gero, saltzaileari pistarako sarreran zigilua jartzea eskatu, eta hiru zigilu lortzen dituenak %50eko deskontua lortuko du. Horrela 4 euro edo 2 euro beharrean, 2 euro edo euro bat ordainduko da sarrera”, adierazi zuten merkatarien elkarteko arduradunek abenduaren 15ean egin zuten aurkezpenean. Iban Agirre alkateak ere hartu zuen hitza eta patinatze pistarekin eta Gabon parkearekin, herritarrek jai zoriontsuak igarotzea espero dutela adierazi zuen.

OPARI-TXEKEAK

Azken urteotako ohiturari jarraiki, aurtien ere Oria merkatarien elkarteko bazkide diren dendetan erosketak egiten dituzten bezeroentzat, 1175 euro zozketatuko dituzte lau opari-txeketan. Erosketak egindakoan saltzaileak emandako boletoa norberaren datuekin bete eta urtarrilaren 12an egingo den zozketan ezaugarrituko dira irabazleak.

BERRIA EGUNKARIA ETA ORIA ELKARTEA ELKALANEAN

Bestalde, Berria egunkariak, Oria merkatarien elkartarekin elkarlanean, kan-



Eguberrietako kanpaina bereziaren aurkezpen ekitaldia.

Oria merkatarien elkarteko bazkide diren dendetan erosketak egiten dituzten bezeroentzat, 1175 euro zozketatuko dituzte lau opari-txeketan


Errebote plazan patinaje pista zabalik izango da urtarrilaren hamarra arte. Txandak ordu erdikoak izango dira eta pista erabiltzeak 4 euroko prezio arrunta izango du

paina bat abiatu du helburu bikoitzarekin; batetik, Villabonako dendetan erosketak egitea sustatzeko eta, bestetik, euskarazko prentsa bultzatzeko. “Norberak bere herrian erosketak egitea ona da, inguruko herri handiagoe-

Patinatzeko pistaren ordutegia

Astelehenetik larunbatera:
11:00-14:00 eta 17:00-21:00.
Ilgandetan:
18:00-20:00.
Oharra: Abenduaren 24an eta 31n 19:00ak arte. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an pista itxita egongo da.

ra edo merkatalguneetara joan beharrik gabe. Eta, gainera, euskarazko komunikabideak ere bultzatuko dituzte kanpaina honen bidez”, azaldu zuen Berriako zuzendari Martxelo Otamendik. Amasa-Villabonako 40 denda Berrialagun egin dira, eta horietan erosketak egiten dituztenen artean, 1000 euroko zozketa egingo da. Herritar bakoitzari, erosketa bakoitzeko, txartel bat emango zaio. Hala, txartel horien guztien artean gauzatuko da zozketa eta bakarra izango da saria jasoko duena. Irabazleak 1000 euroko txartela jasoko du, 40 denda horietan gastatzeko. Urtarrilaren 10a arte luzatuko da kanpaina eta 14an egingo da zozketa.





Azoka Urnietan

GABONETAKO MARKET AZOKA BELAXEN ELKARTEAREN ESKUTIK, LARUNBAT ARRATSALDEAN.



Enkarni Cuesta eta Axun Jauregi azokako antolatzaileak.

Urnietako Belaxen elkarteak antolatu, datorren larunbatean, Gabonetako Market azokaren lehenengo edizioa egingo da Egape ikastolako pilotaleku estalian arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Azokaren eta elkarte antolatzailearen nondik norakoak azaldu dizkigute Belaxengo kide diren Axun Jauregi eta Enkarni Cuestak.

Nola eta zein helbururekin sortu zen Belaxen elkarte?

Enkarni Cuesta: Axun eta biok ibiltzen ginen hainbat azoketan gure lanak aurkeztuz, eta beste herritar batzuekin batera, erabaki genuen Urnietan ere artisauen elkarte bat sortzea merezi zuela, eta duela urtebetetik martxan gaude.

Axun Jauregi: Alde batetik, herriko artisauari ezagutzera emateko ate bat irekitzea litzateke, besteak beste, urtean zehar herrian bertan antolatzen ditugun azoken bitartez. Aurten, Gazte festetan eta Sanmieletan antolatu genituen, eta larunbatekoa izango da hirugarrena.

Nolakoa izan da herritarren erantzuna?

A. J. Saiatu izan gara egun eta ordutegi egokiak aukeratzeko, baina jendea asko kostatzen zaio postuetara hurbiltzea, beste herri batzuetan, guk egiten dugun lanari buruzko kuriositate handiagoa nabaritu izan dugu. Ibiliz egiten

“Saiatu gara familia osoarentzako osagaiak izango dituen azoka bat antolatzen, eta espero dugu herritarren aldetik erantzun ona izango duela”

da bidea, eta espero dugu poliki-poliki hemen ere indarra hartzen joango dela.

Sortu litezkeen artisau berriei irekita al dago Belaxen elkarte?

E. C. Bai noski. Erabat irekita eta gure babesa eskaintzeko prest gaude Urnietan sortu litezkeen edozein motatako artisau berriei.

Zer osagai izango ditu azokak?

E. C. Artisautzari dagokionez, hamalau postu jarriko dira, horietatik bost Urnietan bertako artisauenak. Bigarren eskuko produktuekin zazpi postu osatuko ditugu; herriko dendariak beste hiru postu jarriko dituzte. Horrez gain, izango da txistorra, txokolate beroa, taloak eta abar. Umeentzako tailerrak ere jarriko ditugu.

A. J. Saiatu gara familia osoarentzako osagaiak izango dituen azoka bat antolatzen, eta espero dugu herritarren aldetik erantzun ona izango duela.

Andoain bizi-bizi

UDALAREN GABONETAKO KANPAINAK HELBURU GARBIA DU, HERRI BARRUKO KONTSUMOA SUSTATZEA



Datozen egunetarako hamaika jarduera gehiago iragarri dituzte.

Andoainen egun hauetan erosketak egitea saritu egiten da. Salkin elkarteak zehazki Gabonetako 31 saski zozketatuko ditu erosleen artean. Eta hori gutxi ez eta Udalarekin batera aurkeztu duen “Andoain Txartela”rekin erosketak egiterako orduan %5 eta %10 bitarteko beherpenak lor daitezke.

Zozketa eta beherapenez gain, herriko kaleetako giroa indartzeko “Andoain Bizi 2015” egitasmoa aurkeztu dute. Aurreko larunbatean abiatu zen Eguberrien atariko postu eta azokarekin.

Zozketa eta beherapenez gain, herriko kaleetako giroa indartzeko “Andoain Bizi 2015” egitasmoa aurkeztu dute

Datozen egunetan hamaika jarduera gehiago burutuko dituzte: Gaztain jatea, Santomas eguna, Gabonetako haur parkea, Gazte Astea,... Andoain bizi-bizi dago Eguberrietan.



Artisautza azoka aurreko larunbatean, Salkin merkatari elkartearen eskutik.



ORMENDI & KIROLAK

Zorionak eta Urteberri on!

Gabonetan larunbat arratsaldez irekita

Calle Berria, 2 - 20140 Andoain, Gipuzkoa
Tel./Faxu: 943 591 808



Santomas klasiko bilakatu da Urnietan

TALOAK, TXISTORRA, GAZTAINAK, USADIOZKO SAGARDO LEHIAKETA, SAGAR TARTEN TXAPELKETA IREKIA, GABONETAKO SASKIAREN ZOZKETA..., AUKERA UGARI BERTARATZEN DIRENENTZAT.

Kontzejupean eta Sanjoan plazan egingo da zazpigarren urtez, Iñistorra elkarteak, Urnietako Udalaren babesarekin antolatutako Santomas azoka. Ez dira faltako, jadanik ohiko bihurtu diren txistorra eta sagardo dastaketa, sagar tarta lehiaketa, saskiaren zozketa, gaztaren kiniela, taloak, gaztainak, eta eguneko ekitaldi nagusia izango den VII. Urnietako Usadiozko Sagardo Txapelketa. Arratsaldea alaitzeko, bertan izango dira Urnietako Lurdes Iriondo musika eskolako trikitilari gazteak.

VI. SAGAR TARTA LEHIAKETA

Sagar tarta lehiaketa egingo da seigarren urtez. Bertara aurkezteko, aurrez etxean tarta egin eta arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara bitartean Udaltxeko arkupetara eramatea nahikoa izango da. Parte hartzea irekia izango da urnietarrentzat zein kanpotarrentzat. Partaide bakoitzari txanpain botila bat emango zaio ordainetan, eta txapelketako irabazleak sari bikaina jasoko du. Bigarren sailkatuentzat ere izango da saririk.



Sagardo dastaketa, trikitixa doinuak, sagar tarta... Urnietakoak festa bikaina izateko osagai guztiak ditu.

VII. URNIETAKO USADIOZKO SAGARDO TXAPELKETA

Urnietako Usadiozko Sagardo Txapelketa egingo da zazpigarren urtez. Bertara aurkez daitezke, etxeko kontsumorako sagardoa egiten duten Urnietako baserri eta norbanakoak. Aurtengo-

an zortzi baserrik parte hartuko dute, Elutseta, Antso, Montefrio, Bidegurutseta, Goikoetxe, Saurdei, Milluts, Altzibar eta Sorozabal. Hiru gizonetzko eta hiru emakumek osatutako epaimahaiak erabakiko du zein den aurtengo Urnietako sagardorik onena.

ABENDUAK 21, ASTELEHENA

17:00-20:30 | SAN JUAN PLAZA

- 17:00** Txistorra, taloak eta gaztainen postuen irekiera.
- 19:00** VI. Sagar tarta lehiaketa.
- 19:30** VII. Usadiozko sagardoaren txapelketa.
- 20:30** Gabonetako saskiaren zozketa. Gaztaren kinielaren emaitza. Sagardo irabazlearen enkantea.

GAZTAREN KINIELA, GURIA ETA KANTOI TABERNETAN

Aurreko urteetako moduan, aurten ere gaztaren kiniela egiteko aukera izango dute herritarrek. Euro baten truke egin daiteke kiniela. Gaztaren pisua asmatzen duenak gazta etxeratuko du. Santomas egunera itxaron gabe, kiniela bete daiteke dagoeneko Guria eta Kantoitabernetan. Jaiaren atariko giroa bikaina den adierazle da, dagoeneko ehun herritar baino gehiagok egin baitute gaztaren kiniela.



IAZKO IRABAZLEAK Antso sagardotegia eta Manoli Sorondo tartagilea.



SAGAR TARTA LEHIAKETA Iñistorrako Rosa eta Gentzane iazko edizioan, sagar tarta eskuetan dutela.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ONI

EGAPE IKASTOLA 2015-2016

PASTA LEHIKETA IZAN... zaila
 negotzi egutera
 Kouru eta gogotasunez
 agindai dugi herria
 MACHO INGURUAN SENDAKIN
 IZAN...
 BEROK...
 Espazio urte berria

BIZI GUZTIAN BASERRIKO BIZIMODUA EGIN ARREN, HERRI JAKITURIA HANDIKO PERTSONA HORIETAKOA IZAN ZEN

Fernando Iturralde, Zapeleneako esku motza

Fernando Iturralde Buruntzako auzotarra azaroaren 29an hil zen. Solasakide aparta zen eta makina bat pasadizo kontatu izan zituen azken aldian osasunez pattaldu zen arte, memorian ondo gordeta

eduki baitzituen beti. Bizi guztian baserriko bizimodua egin arren, herri jakituria handiko pertsona izan zen. Beti umoretsu eta esker oneko, nahiz bizitzak gogor kolpatu umetatik.

Iturralde Santa Cruz familiaren baitan jaio zen, 1926an, Irurain Berri baserrian. Zapelenea esanez ere gogoratzen da baserri hori, izan ere, Fernandoren aita gizon puska behar zuen izan, usadio zuena txapel galanta buruan eramatea; hortik letorke baserriaren bigarren izena. Fernando, "Zapeleneako beso motza" zen askorentzat. Hiru anai-arreba eduki zituen Fernandok: Dolores, Inazio eta Klotilde.

Joxetxo bere semeak gogoratzen duenez, txikitik, zazpi urte zituela, eskuin besoa moztu zion makina batek. "Moleda lantegira joaten ziren txirbilaren bila; langileek atsedena hartzen zutenean, makina azpitik ibiltzen ziren biltzen. Behin, langile batek nahi gabe makina bat martxan jarri nonbait, bada, zazit moztu zion aitari eskua. Aitak atsekabe galanta hartu zuen, eta kezkatuta semeak etorkizunean latz edukiko zuelako bizimodua ateratzea, haren izenean utzi zituen baserria eta lur sailak".

Baserrian geratu zen Fernando, eta baita Klotilde bere arreba ere, anaiari laguntzeko asmotan. Bittori Artola zizurkildarrarekin ezkondu, eta hiru seme izan zituen bikoteak. Joxetxo semeak adierazi duenez, "bi esku izan balitu baino lan gehiago egin zuen bere bizian. Batera ez bazen bestera, baina artea zeukan edozein eginkizunetara moldatzeko orduan; segan ere ederki aritzen zen, sega bere ezintasunera egokitu eta gero. Sukaldean abila zen, eta kapaz zen bakarrik egundoko tortilla egiteko".

Baratzean eta baserriko zereginen artetik, baratzea landu zuen batez ere; tomateak, letxugak, porruak..., edozer erein zuen. "Pozik kontatu ohi zuen Gipuzkoan bera izan zela negutegia jarri zuen lehen baserritarra. Behin Frantziara nekazaritza feria batera joan eta



Irunen, 1994ko San Martzialgo jailetako ganadu ferian, Fernandok lehenengo saria eskuratu zuen etxeko behiarekin. Argazkian, Peio Santa Krutzeekin ageri da.

Andoaingo memoria bizia gordetzen zuen altxor galanta joan zaigu bere heriotzarekin

handik ekarri zuen ideia. Bera baratzearen gora-beherez arduratzen zen. Gure ama, be-

rriz, goizean goiz jaiki eta Bretxako merkatura joan ohi zen; astearte eta larunbatetan Andoainera jaisten zen, astoa eta bi saski hartuta. Baratzearekin eta behi esnearekin atera zuten gurasoek familia aurrera".

EUSKAL OHITUREN MAITALE

Lan eta lan egiteaz gain, herri

ohituren eta festen zalea ere bazen Fernando. Urteetan hartu zuen parte Buruntza auzoko San Roke jaien antolaketan, eta Gabonetan nahiz Santa Ageda bezperan, berehala animatzen zen santa eskean ibiltzera baserri baserri. Gogoko zuen inguruko herri edo auzo-etako jaiak bisitatzea ere, Joxe-

Konta ezin bertso zahar gordetzen zituen buruan, eta haiek noiznahi abesteko moduan egoten zen beti

txok adierazi duenez Joxetxok, eta joera hark eragindako pasadizo polita gogoratu du: "Zizurkil gora koadrilan joateko ohitura zuten auzoko gazteek, eta hara nola diren gauzak, hemengo lau mutil hango lau emakumerekin maitemindu, eta auzoko lau baserrietara (Gaztañaga, Etxeburuntza, Baztarrika eta Irurain Berri) ekarri zituzten ezkontzera".

Konta ezin bertso zahar gordetzen zituen buruan, eta haiek noiznahi abesteko moduan egoten zen beti-beti, izaera alai eta baikorrekoa baitzen. Horixe ziurtatu du Ainhoa Aiertza Buruntza auzoko bizilagunak, Fernandorekin ordu asko pasatakoa baita azken urtetan.

"Zer ez ote zidan kontatzen! Oso atsegina eta hizlaria zen, eta etxe aurrean jartzen zenean, ni etxerako bidean pasadizuan topatzen nuenean, beti kontatzen zidan Andoain edo auzoko kontu zaharraren bat, bertso eta kanturen bat, hemengo eta hango istorio harrigarriren bat... Egunean eguneko aktualitatea ere jarraitzen zuen, irratia entzuten zuen, telebista ikusten zuen, Aiurri edo Diario Vasco irakurtzen zituen goitik behera... Edozien gai zela eta, jantzita egoten zen, eta arrazoi ederrak botatzen zituen!".

Antzematen zen baserriari lotuta bizi arren, ondo ikasi zituela herrirako edo urrutiragoko bideak. "Urtetan atzera joan, eta ahoz, kronika bikainak egiten zituen Andoaingo edozein gertakari historikoren inguruan; kazetariaren inbidiarik gabekoak! Egia esanda, Andoaingo memoria bizia gordetzen zuen altxor galanta joan zaigu bere heriotzarekin".



Aurtengo urtarrilean, Axeri dantzarien puska biltzean Fernando eta Klotilde ageri dira.


Eguberrien atariko haur jardueraz betea



Zumaiako Klarinete Maratoian Xabier Ucin, Leire Barquero, Maddi Elizasu eta Aizpea Oria gaztetxoak saritu zituzten. Claudia Alduntzin andoaindarra saritu zuten ere. Argazkian Mikel Emezabal irakaslearekin batera.




La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasle gazteek Eguberrien atariko azoka antolatu zuten Zumea plazan. Gaztain erreka dastatzeko aukera bikaina izan zen.



Ondarreta ikastetxeko haurrek jostailu bilketa solidarioa egin zuten, Bastero aurreko plazatxoan. Argazkian ikus daitezkeen, jostailu eta opari ugari bildu zuten.

Aldaketak ibilbidean



Aita Larramendi ikastolaren eskutik, Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 24an Andoainera iritsiko dira. Kalejiran ibiliko dira arratsaldeko 18:30etik aurrera, herriko haur guztiak agurtzeko gogoz. Azken orduko aldaketa bat egon da ibilbidean eta iragarri dutenez, Olentzero eta Mari Domingi kirodegiko zubitik barrena agertuko dira, eta txondorra Espigoian kokatuko dute. Ondoren, Juanita Alkain plazaraino joango dira eta bertan biltzen diren haurrei hitz batzuk eskainiko dizkiete.

Olazabalen bidea saria eskuratu zuen Caritasen eskutik

Merezitako omenaldia Jose Luis Etxeberriari



Etxeberria omendu dute aurten. Argazkian, bere familiarekin batera.

Pertsona zuzena, apala, eskuzabala, diziplinatua, tematia, txistulari eta kantari bikaina, euskal ohituren maitale eta sustatzailea... Definizio ugari aipatu zituzten Jose Luis Etxeberria omendua deskribatzeko, *Olazabalen Bidea* sari banaketa ekitaldian.

Bideoz egindako muntaian ikusi zenez, bere urtetako ekinak leku askotan utzi izan du arrastoa. Hainbat kultur eragilek zoriondu nahi izan zuten: Iñaki Zabaleta Andoango parrokiako erretoreak, Olagain txistulari elkarteak eta Ikastolako ikasle ohien txistulari taldeak, Andoaingo eta Adunako Axeri dantzako dantzariak, Ana Belen Garcia piano joleak, Alberto Agirre abesbatzak, Javier Hernandez Joxan Pascual musika zuzendariak, hain zuzen ere.

Etxeberriak Virginia Hernandez Andoaingo Caritaseko elkartearen eskutik jaso zuen saria, eta segidan, Axeri dantzako bi dantzariak zortzikoa eskaini zioten Olagain txistulari elkartearen kideek lagunduta.

Etxeberriak egin zuen mintzaldian, Andoainen txistuak eta abesbatzak azken hamarkadetan egin duten ibilbideari buruzko azalpenak eman zituen. Ez alferrik, bien sorkuntza eta garapena Etxeberriekin lotuta baitoaz estu-estu. Pio eta Joxe Mari Huizi eta Joxe Goikoetxea izan zituen orduan ondoan, Udal txistularien banda zein Alberto Agirre abesbatza sortzeko. Ahaztu



Caritasen ekitaldian Patxi Irigoras, Joxepi Alduntzin, Jesus Mari Otamendi, Clemente Iurramendi eta Jose Mari Rubiñori ere esker ona adierazi zieten.

gabe bi ekimen emankor horien aurretik, Jose Antonio Zalakain, Jesus Mari Otamendi eta hirurak ikastolako haurrei txistua jotzen irakasten ibili zirela.

Saria eman bai, baina lanean ere jarri zuten emanaldian zehar, Alberto Agirre abesbatza zuzendu behar izan baitzuen "Bihotz bat" abestiarekin.

Olazabalen Bidean beste zenbait herrikide ere gogoan hartu zituzten. Bereziki aurten

zendu den Jose Mari Olazabal. Olazabalen ibilbidea azaltzen zituzten argazkiak erakutsi ostean, Irene Arregi alargunak oroigarria jaso zuen; alabak, berriz, bertso batzuk eskaini zizkion aitari. Andoaingo Caritas elkartearen urtetan boluntario izan ziren Patxi Irigoras, Joxepi Alduntzin, Jesus Mari Otamendi, Clemente Iurramendi eta Jose Mari Rubiñori esker ona adierazi zieten, pergamino berezia oparituz.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA


DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



KIROL ALBISTEAK

“Emakumeen futbola gizonena bezain polita da”

Hamarkada pare bat pasa egin ditu dagoeneko Juanjo Arregik Urnietan (Donostia, 51 urte). Saltsa askotan ibili zalea da, baina futbolarik betetzen du egun bere aisi tarte handiena. Emakumezkoen Euskal Selektzioa hautatzailea da, eta abenduaren 26ko partidako atarikoak eta beste kontu asko izan ditu hizpide.



Juanjo Arregi urnietarra, emakumezkoen euskal selektzioa hautatzailea.

Kontaiguzu zure ibilbidea.

Juanjo Arregi. Donostiko Udaltxean egiten dut lana, mantentzen alorlean. Bere garaian futboleak jokatu nuen, eta afizioa lagun, entrenatzaile ikastaroak egin nituen, nazional mailako titulua lortu arte. Urnietan kategoria guztietako entrenatzaile izan naiz mutiletan, kirol eskolan ere aritua naiz, eta halako batean Añorgak, Nazional II mailako taldea gidatzea eskaini zidan. 16 eta 18 urtez azpiko mutilen Euskal Selektzioarekin trebatu nintzen aurrez, Felipe Garmendiaren laguntzailer jardunean. Añorgan denboraldi ona osatu genuen, eta nesken 12 urtez azpiko Euskal Selektzioa hartzea eskaini zidaten. Gero 18 urtez azpikoa eta aurretik absolutua. 18 urtez azpikoa Irene Legarra eta Alba Cabrera, Urnietako bi emakume jokatzeko dute. Lehen taldean Nahikari Garciak.

Nolakoa da zure lana, selektzioa ofiziala ez dela aintzat hartuta?

J.A. Prestakuntza lana eskasa da. Egutegiarekin borrokan ibiltzen da federazioa, eta partidez gain, apenas egiten ditugu lan saioak. Kilometro asko egiten ditut futbolarik onenak aukeratzeko. Hego Euskal Herrikoak, ia erabat.

Zer da, zaletasuna edo lana?

J.A. Gustuko dut futbola, baina neurrian, bete gabe. Ez da ofizio bat, eta izatea nahi ere ez. Norbaitek esaldi bat esan zidan behinola: futbola da garrantzitsuena niretzat, baina garrantzirik ez duten gauzen zerrendan.

Soldatarik jasotzen al duzu?

J.A. Ez. Kilometrajea ordaintzen digute, baina besterik ez.

Zaletasuna da, baina konpromisoa ere bai, niretzat garrantzitsua delako Euskal Selektzioak oihartzun ahalik eta handiena izatea.

Zergatik emakumeak?

J.A. Bueno, mutilekin aritu nintzenez, Felipe Garmendiarekin, jabetu nintzen ez nintzela gozatzen ari. Etxean ere hiru baten aurka gara, hiru emakume eta ni, eta emakumeekin hobeto moldatzen naiz. Emakumezkoen futbola hazten ari da etengabe, eta ni bilakaera horren parte sentitzen naiz. Emakumeen futbola ikusten duen oro aho bete hortz gertatzen da, ez duelako pentsatzen hain azkar, hain ondo joka dezaketarik. Emakumezkoen futbola gizonenak bezain polita da, baina gizonenak daukan maltzurkeriarik ez duena, eta horrek oso erakargarri egiten du.

Mutilen futboleko entrenatzaileak eta jokalariek egoaz mintzatzeko duten garrantzia.

J.A. Jakina, mutilik adina lehiakorrak edo gehiago direlako. Euskal Selektzioaren kasuan, partida gutxi jokatzeko ditugu, eta egoen kontua eta alboratu egiten dute. Hautatzaileek ez dugu talde bateko entrenatzaileek egunerokoan duten ardura hori, partidari begira pautu batzuk ematen ditugu eta kito.

Athletic, Real, Oartzun... Euskal Herrian emakumezkoen futbolariek tiradizo handia dauka.

J.A. Euskal Herrian kirolaren

“18 urtez azpikoan Irene Legarra eta Alba Cabrera urnietarrek jokatzeko dute. Lehen taldean Nahikari Garciak”

baitan bizi gara. Kirola funtsezko osagaia da gure eguneroko bizitzan. Futboleko Lehen Mailan hiru talde ditugu, Osasuna eta Alaves 2. mailan igotzeko borrokan. Emakumezkoetan hiru talde. Saskibaloia, goren mailan 3 eta 3. Errugbia, eskubaloia, txirrindularitza, belar-hockeya, buruz-buru... Ikaragarria da. Jokalari asko talde onenetara joaten ari dira, eta horrek erakusten du Euskal Herria futbol harrobi emankorra dela.

Hilaren 26an, larunbatez, jokatuko duzue Kataluniaren aurka Bartzelonan. Miniestadi-an, gizonenak ez bezala. Hor ere zer hobetua badago, ezta?

J.A. Izango da, baina ni gustura nago estadio txikian jokatzeko dugulako. Harreman handia dut Kataluniarekin, eta 26a San Esteban eguna da han, festa handia. Goizean Nou Camp-en lau katurekin jokatu baino, nahiago dut arratsaldean Mini Estadi-an jokatu, berotasun handiagoa sumatuko dugulako. Mutilen selektzioa Camp Nou handian izango duena baino handiagoa, ziur aski. Ez da zela baten edo bestearen kontua. Zer da hobe, Nou Camp-en 5.000 lagunekin jokatzeko, edo Mini Estadi-a bete samar dagoela jokatzeko?

Gipuzkoako kros txapelketa



Gonzalez, Lazkano, Arruti eta Garitaonandia Ordizian.

Zumeatarra taldeko kideek Gipuzkoako kros txapelketan parte hartu zuten, Ordiziako Oiangu parkean 8.3 kilometroko ibilbidean jokatuz zena.

Andoingo parte hartzaileen artean Ander Lazkano 16. postuan sailkatu zen. Haren taldekide Oñatz Gonzalez, Imanol Arruti eta Asier Garitaonandia ere irten ziren.

Gipuzkoako txapelkun-orde



Xabier Garagorri eta Aitor Argiñarena erdian, lortutako sariarekin.

Aitor Argiñarena eta Xabier Garagorri UKEko pala motzeko kideak Gipuzkoako txapelkun-orde dira, finalean fabrikatzen Real Sociedad taldearen aurka 40-19 galdu eta gero. Oلابerrian jokatu zen partida, eta bigarren postua lortzeaz gain bigarren mailarako igoera eskuatu dute.

ren aurka 40-19 galdu eta gero. Oلابerrian jokatu zen partida, eta bigarren postua lortzeaz gain bigarren mailarako igoera eskuatu dute.

Ganbara saskibaloia taldea

Ganbara SenM 60-57 Añorga Goierri 48-63 Ganbara JubM Asteburuko partidak: Ganbara JubM-Tolosa Larunbata, 19. 12:25.

Senior mailako taldeak garaipekin bikaina lortu zuen, sailkapenean gaikaldean dagoen taldeari irabaziz. Jubenilak igoerarako fasean sartzea dira.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal Herriko Foru Erkidegoa

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-RURINTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larreamendi
Kultur Bizkaria



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urrietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba
Lizeaga, Izarne Olano
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnieta).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

ABENDUAREN 17TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- "Sinsajo. Parte 1".
Larunbata, 19. 19:30, 22:00.
Igandea, 20. 19:30.
Astlehena, 21. 19:30, 22:00.
"Ups! Donde esta Noe?".
Larunbata, igandea. 17:00.

Urnieta

- La canción del mar
16:00, 18:30.
Abenduak 20, igandea.

Ikuszirkus

Andoain, Bastero

- Nazioarteko eta Euskal Herriko konpainiak.
20:00. Bastero.
Abenduak 26tik 29ra.

Olentzero

Urnieta

- Olentzero eta Mari Domingi Berrasoetatik iritsiko dira.
17:00. Berrasoeta.
Abenduak 23, asteazkena.

Andoain

- Olentzero eta Mari Domingi Kiroldegitik iritsiko dira.
18:30. Allurralde zubia.
Abenduak 24, osteguna.

Farmaziak

Etxebeste, Hernani

- Abenduak 25, ostirala.
Abenduak 31, osteguna.

Eguberriak

Urnieta

- Argiak pizteko ekitaldia.
18:00 Salesiar ikastetxea.
Abenduak 17, osteguna.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- "Nuestras mujeres".
21:30. 15 euro.
Abenduak 18, ostirala.

Urnieta, Sarobe

- Antzerki tailerreko saioa.
20:00. Dohainik.
Abenduak 18, ostirala.
- Moby Dick ikuskizuna, sei urtetik aurrerako ikusleentzat.
17:30. 3 euro.
Abenduak 27, igandea.

Santomas

Urnieta

- Santomas azoka, Iñistorraren eskutik.
17:00 Txistorra, taloak eta gaztainen postuen irekiera.
19:00 Sagar tarta lehiaketa.
19:30 Usadiozko sagardoa-
ren txapelketa.
20:30 Gabonetako saskia-
ren zozketa. Gazta-
ren kinielaren emaitza. Sagardo irabazle-
aren enkantea.
San Juan plaza.
Abenduak 21, astelehena.

Musika

Urnieta, Sarobe

- **Abenduko aste musikala**, Musika eskolaren kontzertuak:
18:00 Pianoa, biolina, tron-
peta, trikitixa.
Abenduak 17, osteguna.

Andoain

- "Txistuaren soinuez, herri-
zubiak", Olagain bandaren
emanaldia.
12:30. Bastero.
Abenduak 20, igandea.
- Urte Zahar gaueko DJ saioa.
00:45. Nafarroa plaza.
Abenduak 31, osteguna.

Azoka

Urnieta

- Urrietako Belaxen arti-
sauen elkartearen eskutik,
Gabonetako Azoka.
17:00 Egape.
Abenduak 19, larunbata.

Gazte Astea

Andoain

- Eguberrietan hitzordu ugari
Gazte Lokalean.
Abenduak 22tik 30era.


Erakusketa

Andoain, Bastero

- "400 txokotatik Andoaine-
ra". Irudiak, lekukotzak eta
ikus-entzuzkoa.
Abenduaren 30era arte.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Maialen Diez Rezolak urtarri-
laren 4an 21 urte
egingo ditu. Zor-
terikonena Eras-
mus ibilbide
berria. Muxuak,
etxeokak.

ANDOAIN


ZORIONAK



Gure etxeko
printzesak 10
urte beteko ditu
abenduaren
18an. Muxu
erraldoi bat
amaboa eta aita-
txoren partez.

URNIETA


ZORIONAK



Naiarak aben-
duaren 16an 18
urte bete zituen.
Ondo pasa
zenuelakoan.
Etxekoen parte-
tik, 18 muxu
potolo!

URNIETA

ZORIONAK



Olentzeroren
opariak bezala
etorritzen gure-
ra orain urtebe-
te! Txokolatezko
muxu handi bat
Aroa! Amaboa
koadrila.

ANDOAIN

Aiurri

DATORREN ASTEAN EZ DA AIURRIRIK ARGITARATUKO

Hauxe izan da urteko azken **Aiurri** astekaria. Datorren urteko lehena urtarri-
laren 7an argitaratuko da. Eguberri eta Urte berri on!

Poxta Zaharren eskutik, lasterketa Urrietan

Hirugarren urtez jarraian, Poxta Zahar gazte elkarteak Urte zaharreko lasterketa antolatuko du Urrietan. Eta oraingoan ere, lasterketan ateratako irabaziak Super H elkarteari bideratuko dizkio. Izena emateko aukera zabalik dago Kantoi eta Xauxar tabernetan, 3 euroko prezioan. Egun berean 5 euro ordaindu beharko dira. Izena ematerako garaian par-

taidea haurra edo heldua den zehaztu behar da.

Aurtengoan ere antolatzaileek mozarrotuta agertzeko deialdia egin dute. Eta sari banaketa ekitaldian, mozarro onenak saria lortuko du. Baita sailkapeneko lehen hiru gizoneko eta emakumezkoek ere.

16:30 Haurrak, 12 urte arte.

17:30 Helduak.

Abenduak 31, osteguna.

Presoen aldeko hitzorduak

Andoainen presoen eskubideen aldeko hitzorduak antolatu dituzte, abenduaren 24an hasi eta urtarrilaren 8ra bitarte. Abenduaren 24an presoen eskubideen aldeko Olentzeroren kalejira

Arrate plazatik abiatuko da, arratsaldeko 16:00etan hasita. Abenduaren 29an, berriz, gazteek preso politikoen egoera aztergai izango dute, goizeko 10:30etik aurrera Uriagainen.

EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO WWW.AIURRI.COM/AGENDA.PHP ATALEAN



andoaindarrak
euskaraz .eus

Andoaindarrak
Euskaraz zerbitzuaren
webgunea

